


25. zenbakia  
2001eko abendua

U R I B E K O S T A K O A L D I Z K A R I A

UK

[urtebarri ON]

• maialen lujanbio • ruper ordorika • akabuko punte •



Katutxoak. Zer ote darabilte buruan katutxoak horrela begira? Zer ote dakizue gizakion bizimodu petralaz? Ba, eurena ere! Ai, ene. Elkarregaz bizi gara, baina mundu desberdinetan, antza. Zuek "miao" eta guk "xapi"!

Argazkia: Mikel Martinez

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzaria E.B.E.  
 HELBIDEA: Anesti 6, 4. solaina, 5. begia 48990 GETXO  
 e-mail: aldizkari@euskalt.net / Posta Kutxa 171 / Tel & fax: 94 491 13 37  
 ZUZENDARIA: Jokin Aspuru  
 ERREDAKZIOA: Maitane Barroso, Iñaz Benede, Javi Gonzalez del Herrero  
 ARGAKZI ARDURADUNA: Mikel Martinez  
 TESTUEN ORRAZKETA: Joseba Burron  
 INFOGRAFIA: Guillermo Almagia  
 MARRAZKILARIA: Goña Vázquez  
 KOLABORATZAILERAK: Bitor Egurrola, Esti Eskerra, Jokin de Pedro, Isaso Arana, Gaizka Escudero, Xabi Bilbao, Unai Ekerriaga, Argizko Bertolari Eskola, Alaitze Kaminaga  
 PUBLIZITATEA: Goña Oñate (94 491 13 37)  
 FILMAZIOA: ARGIA / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00  
 ISSN: 1576-6799

Oso onki edo zaitz, makinaz zera informatikar laguntza, baimen buruk, erabateko galarazirik dago  
 © BOLUNTZARRETA  
 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskararen elkarrean TOPAGUNEko parte da

Aldizkari honek Bizarrak Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du

Itxasgane Etxea / Karitatea 1

TOPAGunea

GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du

Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du

Berango Udala

Aldizkari honek Berango Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du

Erandio Udala

Aldizkari honek Erandio Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du

Berbotz Euskara Elkartea

Aldizkari honek Berbotz Euskara Elkartearen laguntza jasotzen du

Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jasotzen du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren dirulaguntza jasotzen du

ALDIZKARIA jaso nahi duenak deitu baino (94 491 13 37) ez du egin behar.

Pozik onartzen ditugu zuen dirulaguntzak:

BBK 2095 0022 00 91 02483676



**OLENTZERO LAPURRETAN?**  
 Egoera susmagarri honetan harrapatu genuen Olentzero egun argitan. Ez dakigu Gabon gauerako trebaketa ariketak egiten ari ote zen, ez dakigu jaso dituen eskari guztiei aurre egin ezinik ote dabilen eta lapurretan ari zen, ez dakigu. Berari galdetzen saiatu ginen, baina ziztu bizian alde egin zuen.

# [ABENDUA]

Abendua, Gabonak, Olentzero... hara hor kristau jantziz mozturoruturiko beste jai pagano batzuk, San Juanetako ospakizunaren beste muturrekoak; haiek eguzkiari, egun luzeenari eskainiak; haiek gauari, egun luburrenari. Neguko solstizioa ospagai duten jai samurrak dira Eguberriak, gau luzearen amaia aldarrikatuz egun berriak iragartzen dituztenak: "Abenduko eguna, argitu orduko iluna".

Senitarteak elkartu, denak zoriondu beharra, opariak nonahi eta norinahi baina, azken batean, ospakizun kate luzea: "Abendua gau huts eta jai huts". Eta euskaldunok hain janzaleak izanik, mahaiaren inguruan gustura sentitzen garenez, honela definitu izan ditugu: "Gabon jan eta egon, Natibitate ase eta bete, San Estebantxe, lehen bezelantxe".

Esan liteke jai pagano moduan hasi zirenei, erlijio edukia jantzi ondoren, ostera ere jausi egin zaiela mozturroa, jentil aroko oturuntzetara itzultzeko.

Hori ote da dena?  
 Edozelan ere, Zorionak, irakurle, eta Urteberri on!

JOKIN DE PEDRO

## San Jorge eta Herensugea



Guztira hamaika musika egilek hartu dute parte diskoan. Goian, eurretario batzuk. / Argazkia: Mikel Martinez

## Diskoa UKproiekt01

**Aldizkari honek eskualdeko musika elektroniko egileen kanta bilduma argitaratu du. Aurkezpen ekitaldia, abenduaren 27an Berango "Purgatorio"n**

Iaz zabaldu genuen biderei jarraituz, disko berri bat plazaratu du aldizkari honek Gabonetan. Aurreko diskoan atzera begiratzea erabaki genuen eta Bitor Egurrola gure lankidearen trantsizio aurreko protesta kantak (galduak zeuden eta ezinezkoa ziren inon topatzea) bildu genituen CD batean. Oraingoan, berriz, eta denboran jausi handia eman eta gero, etorkizunari begiratzea otu zaigu eta, horregatik, gaur egun gure eskualdeko musika elektroniko egileen kanta bilduma prestatu dugu. Diskoari UKproiekt01 izena jarri diogu. Izan ere, disko hau proiektu berri baten abiapuntua da, aurretik UK aldizkaria plazaratzeaz gain beste-lako produktua (liburuak, diskoak...) argitaratzen hasteko asmoa dugulako.

Ordubete irauten duen disko honi dagokionez, guztira estilo desberdinak jorratzen dituzten hamar talderen kantak daude bilduta. Egileak haiek dira: Isr@, Guillermo Balzola, Virginia Elorduy, Juan Ballaz, Koko Navajas, Lion Pilon, Aitzol Unzurrunzaga, Gaizka Pereda, Luis A. Ruiz, Javier Torre eta Borja Serra. Masterizazioa Gasteizko Cantón de la Soledad Records-en egin genuen eta diseinu lanak Eider Corralek hartu zituen.

Abenduaren 27an iluntzean Berango Purgatorio tabernan diskoaren aurkezpen jaia antolatuko dugu. Bertan zuzeneko musika, dj-ak eta sorpresaren bat edo beste egongo dira. Eta jakina, UKproiekt01 diskoa eskuratu nahi duenak, han izango du horretarako aukera. m



Diskoa laster salgai egongo da inguruko musika dendetan.  
 Eskailerak: 94 491 13 37

# [photo-finhitz]

Argazkia: Mikel Martinez / Testua: Unai Elorriaga

## Jogurt-tapak



[lehen]



[orain]

Berrogeita hiru urte dauzkan pertsona batek ere ulertu ahal du. Hori azaldu nion lehengo egunean izekori. Berak ere ulertu ahal duela esan nion. Nik ere zazpi urte nituenean ez nituela gauza asko ulertzen, baina orain bederatzirterekin askozaz gauza gehiago ulertzen ditudala. Hori ere azaldu nion (azalpen beharrean bizi da izeko Begoña). Askozaz gauza gehiago ulertzen ditut orain. Ulertzen dut zergatik ibiltzen diren katuak gauzez, edo behintzat badakit katuak gauzez ibiltzen direla. Eta beste gauza asko ulertzen ditut. Baina hurrengo batean azalduko ditut. Gaur ez. Baina gauza asko ulertzen ditut, benetan.

Horregatik esan nion berak ere ulertu ahal zuela argazkiko txakurrarena. Argazkiko txakurra da telebistan eta zinean eta liburuetan agertzen den txakur tipikoa. Txakur horiek hitz egiten dute, ordenagailuarekin ibiltzen dira jolasean eta etxea ere badaukate, sofa batekin eta bainuontzi batekin.

Bestelako kontua dira mamuak edo espirituak. Mamuak eta espirituak benetakoak dira baina ez dira askotan ikusten. Kontua da oso zaila dela mamu bat ikustea. Zer

esanik ez espiritu bat. Espiritu bat ikustea da futbol-kromorik zailena kalean botata topatzea baino zailagoa edo lagun batek oparitzea baino zailagoa. Edo jogurt-tapa batean saria tokatzea baino zailagoa edo "siga buscando hay miles de premios" ez tokatzea baino zailagoa. Teoria bat daukat nik: mamuek eta espirituak tranpa egiten dute, ez dira telebistatik edo zine-pantailatik edo liburuetatik irteten. Horregatik ezin dira topatu.

Txakurrak, oster, alaiagoak dira eta ditxaraxeroagoak. Amak esaten du saltinbankiak direla txakurrak. Horregatik irteten dira gehiagotan telebistatik eta zine-pantailatik eta liburuetatik. Esaterako, argazkian dagoen hau. Argazkiko txakurra liburu bateko txakurra da. Orain dela gutxi irakurri dut nik txakur horren liburua. Hori ba: argazkiko txakurrak bizikleta hartu eta liburutik irten da. Suerte txarra eduki du, baina. Liburua Madril-en edo zegoen eta honaino etortzeko lanak izan ditu. Eta orain sano nekatuta dago. Deskantsuan. Izan ere, aspaldi zegoen entrenatu barik; Tourreko etapa irabazi eta positibo eman

Iraganez doa denbora\* beti / ALGORTA

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

Argazkiak: Mikel Martinez

[narrazioa]

# Gabon ipuina

Jokin de Pedro

Eskekoa Kepari hurreratu zitzaionean, hau gelditu egin zen espaloian eta atzera ere egin zuen apur bat, konturatu barik. Bazterretik jotzea ere pentsatu zuen, baina eskekoa aurrez aurre zetorkion, begiak begietan finkatuz, ahoan zozter xuxurlatzen zuela. Ez zen gizon gaztea, nahiz eta itxura zarpailsuak, bizar luze urdinak eta haizeak alde guztietara sakabanatzen zizkion buruko sapa kiribilduek gizon hamar urte zaharragoaren itxura eman, agure batena ia.

Urrats labur baina artezekin zetorkion goiz hartan bapogosaldua egunkari erosi berria zekarren Kepari. Hiru-lau pausura baino ez zeukan. Besoa emeki luzaturik, lotsaz bezala, ahur lohi-lohia zerakuskion: mendeen mendeetan galtzen den apaltasunezko eskariaren zeinua. Ahurraren koloreari erreparatu zion Kepak: ikatzaren beltza zuen, ilentziak erabili izan balitu bezalakoa. Aurpegia zerbait garbiago zuen; honetan eguraldi hotz-beroen oldarra nabari zen, bereziki azpegi gorriduran eta betazpi lodietan.

Urrats bakar batera zuen erdi saltoka, erdi tatarrez zebilen gizaki zarpailsua. Kepa orduan ohartu zen haren jantzien lohiaz: gabardina zahata zaharra baino koipeztoagoak ez zituen guztiz estaltzen barruan zeramatzenak: soingaineko maiztua, amerikana ugerdo urratua eta Txiritaren etorria biztuko luketen alkandora bi edo hiru, iduneko guztiak baldres-baldres elkarjarriak zituztenak.

Abendua zen. Abenduaren hogeita lau. Goizgiro hotzean, haize bolada izoztu batek jo zuen, bizkorraz, Keparen aurpegia. Une hartan denbora gelditu egin zela begitandu zitzaion. Ez zuen, bestalde, azkar erantzuteko premiarik; aurrez aurre zituen begi gorri nekatuek ez bide zuten inorako lehiarik; aitzitik, esku ahur erostaria lagun zutela, egonariaren irudia bera ziren, baiezko erantzuna –limosna emateko keinu nahastezina– bere presarengan noiz atzemango zain eta zain eta zain...

Eman zitzakeen edo asma zitzakeen erantzunak parrastadaka bururatu zitzaizkion; denak ezezkoak, guztiak egoera deseroso hartatik irtetekoak eta espaloian hartatik barik –zorte txarra, gero!– kalearen bestaldeko espaloitik abiatu izan balizko egoera lasaira bueltatuko luketen erantzunak. Denbora geldirik zegoen hartan, erantzunak zenbatzeko eta zerrendatzeko abagunea ere izan zuen:

Bat: Ezikusit egin, ezentzun egin, ezjakin egin, begirada aldendu eta aurrera.

Bi: “Begira, ez daukat ezertxo ere aldean, txanponik ere ez, sentitzen dut (jira azkarra eskumaldera eta urratsa bizkortu)

Hiru: “Hara, gizona: egia esan ez daukat ezer zuri emateko-rik, baina nik urtean pare bat aldiz-edo ahal dudantxo ematen diot Caritas-i edo horren pareko beste ONGren bati. Zuk bertara jo beharko zenuke eta laguntza emango lizukete...”

Lau: Arloteari eskua sorbalda jarri, lastankor, begi-begietara so nagoela, galderak egiten hasi, haren bizitzaz eta gorabeheraz

interesaturik egon eta hala adierazi berari... (!) Et, et, et! Hau ez zait sekula burutik pasatu ere egin. Zer dela eta? Hobe da... Baina dagoeneko eskua lepoan jarri diot eskekoari, izena galdetzen nabil, zer behar duen, milako bat eman diot, ba ote duen nora joan, norekin afaldu... Hau ez da benetakoa!

Hura ez zen benetakoa. Ez zen abenduaren hogeita lau goiza, abenduaren hogeita lau arratsaldea baino. Kepa ez zegoen kalean, etxeko giro epelean baizik. Bazkari joriaren osteko lotalditik itxartu berria zen. Ez zuen behinolako dueluen antza zuen norgehiagoka hartan erabaki behar larritasunik pairatu behar. Askea zen, libre zegoen ametszko lotura hartatik ere eta nahi bezala ospa zezakeen gaua, jataldi ederra eginez eta opari giroan murgilduz. Hura eskapada!

Gaua zelan emango zuen hausnartzen hasi zen, baina zerbaiten hutsa nabaritzen zuen behin eta berriz, gogobetegarri ez zitzaion behin ere.

Besaulkitik jaiki, soingainekoa kakotik jaso eta kalera abiatu zen arrapataka. Atariko atea ireki, baina aurrez aurre zen espaloian ez zen inor ageri. “Nor izango zen ba?” Hala ere, hura ez zen ametszko espaloia... ametsen iragarki handi bat zegoen eta oraingoan ez zegoen

horrelakorik. “Izan ere, nagoen espaloian, alderdi honetan bazen iragarki handi bat...” Ezkerretara begiratu eta EROSKIren Gabonetarako eskaintzak koloretsuki azaltzen zituen kartel handi handi bat ikusi zuen, orube huts bat zedarritzen zuen harresiaren

“ Besoa emeki luzaturik, lotsaz bezala, ahur lohi-lohia zerakuskion: mendeen mendeetan galtzen den

ganean. Iragarkiari begira, gizaseme bat, buruari hazka, patxada osoan. Kepak gizonaganantz jo du; lehenik astiro, gero azkarrago... gizonak burua jiratu du. Kepa harengana abiada bizian datorrela ikusirik, apur bat beldurtu egin da eta alde egitera doa, erdi saltoka erdi tatarrez. “Hori da, hori! Bera da! E, itxaron, ez al didazu ezer eskatu behar? Laugarren erantzuna aukeratu dut, entzuten duzu, laugarrena! Ez aldegin, ez al duzu ezer behar?”

Zarpilez jantzita dagoena gelditu eta, harriduraz, erantzun dio: “Ba... hogerlekoren bat baduzu niretzat, Jaungoikoak eskertuko dizu, ni...” Besoa aurrerantz apalki luzatu du, esku ahurra ageri, mendeen mendeetan galtzen den apaltasunezko eskariaren zeinua.4





ALGORTA

dj.ak  
antzerkia  
erakusketak

k  
r  
i  
m  
e  
a



Negubide 13  
Tel. 94 463 61 82


AREETA



Taberna  
Berri

Sarrikobaso 4 - ALGORTA  
Tf.: 944 306 493

jateko



urdaitegia • frutadenda • ellkagaiak

Amezti 4 - Tf.: 94 491 06 54  
ALGORTA

[albuma]

[ohiturak]

## Gabon-mukurra

### Errautsek indar berezia zuten gaitzetatik babesteko

Testua: Akaitze Kamiruaga

Gabonak bere badatoz eta... Hauxe berau esaten zuen batek San Juanak igaro eta hurrengo egunetik hasita. Izan ere, batzuentzat urtea ziklo nagusi bitan banatzen zen. Eta egia esan San Juanak eta gero konturatu ere egin barik heltzen dira Gabonak, denborak igarri ere egin gabe egiten digu ihes esku-artetik. Ene bada, zahartzen hasita ete nago!

Kontuak kontu, aitzakia hau erabiliko dut Gabonetako ohitura zahar honi buruz gauzatxo pare bat esateko. Antzina, Gabon-mukurraren usadioa nahiko zabala zen gure etxeetan. Enbor horrek izen desberdin ugari ditu: Gabon-mukurra, Gabon-zuzia, Gabon-subila, Subilaro-egurra, Olentzero-enborra...

Gabon-gauerako beren beregi prestatzen

zen enbor handi hau, toki batzuetan udazkenean basoan hartu eta idiekin etxera eraman eta gero, estalpean gordetzen zen gero Gabon-gaueko surtan erretzeko. Sarritan gau osoan egoten zen sua piztuta, egunetan egoten ez zenean.


Enbor horren errautsek indar eta balio berezia zuten etxeoak zein etxabereak gaitzetatik zaintzeko eta babesteko. Herri batzuetan etxabereak errautsen gainetik pasarazten zituzten, ezbeharrak eta zoritarrak uxatzeko. Etxea ere gabon-mukurraren kearekin lurrintzen zen eta errautsak sorotera ere botatzen ziren gurutzearen irudia eginez.

Egun, beheko sua edo txapa dagoen lekuetan enbor horren oroimenez familiako partaide

“Gabon-gauerako prestatzen zen beren beregi enbor handi hau”



[dokumentua]



AURREKO ALEAN goiko agiria argitaratu genuen eta ea zenbat izan daitekeen gaur egun 1938ko 500 pta. galdetu genizuen. 1) Lauaxeta euskaltegiko 4. urratseko ikasleen ikerketa: 1938an batz bestea behi batek 500 pta. balio omen zituen; gaur egun, berriz, 200.000 pta. inguru. 2) Beste datu bat: 1938an udal langile arrunt batek 60 pta.ko soldata zuen hilero; hortaz, zortzi hilabeteko soldata. Gaur egun, berriz, 900.000 pta. inguru.

## Oharra irakurleei

Hauxe duzue UK aldizkariaren aro honetako azken zenbakia. Guztira 26 zenbaki izan dira. Baina zer esan nahi du honek? Bada, otsailetik aurrera, aldizkarian aldaketa batzuk igarriko dituzuela. Adibidez, orain arte Erandion, Leioan eta Berangon aldizkariarekin batera baina bereizirik banatzen ziren gehigarriak UK barruan txertaturik joango dira. Bestetik, aldizkaria bera atal berriekin, kolaboratzaile berriekin indartzeko lanean gabilta. Horregatik aldizkaria itxura aldetik asko ez bada ere, edukien aldetik aldatuko da; gehiago eta askotarikoak izango dira hauek. Hori da gure asmoa, behintzat. Aldizkari mardulagoa, zuzandik hurbilagoa, interesgarriagoa egiten saiatuko gara. Baina honetan asmatzeko, zuten iritziak, ekarpenak eta iradokizunak beharrezkoak ditugu, aldizkari honen helburua zuten jakin-mina asetzeko delako. Espero dugu UK berriarekin hobeto asmatzea. beste barik, otsailera arte, agur beroa eta urte berri on!

## Euskararen eguna Sopelan

Joan den azaroaren 30ean, Ander Deuna egunean, udaleko Euskara Zerbitzuak antolatuta, beste hainbat herritan bezala, Euskararen Eguna ospatu zen Sopelan. Goizeko hamaiketan Pello Zabala meteorologoak berbaldi interesgarria eman zuen kultur aretoan. Ondoren udal korporazioarekin batera Ander Deuna baselizara joan zen mesa entzutera, gero, hamaiketako jateko asmoarekin. Han txistulariak eta aurrekua dantzatuko zuten dantzaria zain zituzten. Jaiak arratsaldean jarraitu zuen. Zazpietan, Tour bi irabazi dituen Joane Somarriba omenaldi jendetsua egin zitzaion. Zazpi eta erdietan umeek txontxogilotaz gozatzeko aukera eduki zuten kultur etxean. Euskararen eguna hau gauean bukatu zen, Mikel Urdangarinek emandako



## Euskara web berria

### Getxoko Euskara Zerbitzuaren gunere berria

Euskararen hilabete honetan Getxon Euskararen aste zela eta egin diren ekitaldien artean, udaleko Euskara Zerbitzuak joan den abenduaren 3an aurkeztu zuen web orrialdea aipatu behar dugu inolako zalantzarik gabe.

Joxi Arakamak, Getxoko udaleko euskara teknikariak, orrialde honen funtzionamendua, helburuak eta atalak azaldu zizkigun: "Getxoko udalak aspalditik zuen bere web propioa; www.getxo.net. Bertan euskarak bazeukan bere lekutxo baina toki berri honekin euskaraz eta euskarari buruz aritzeko atal oso bat lortu dugu. Orrialdea atal ezberdinez osatuta dago. Bat adibidez, Getxon euskararen egoera azterzen du. Hemen herriko datu ugari aurkitu daitezke; zenbat euskaldun dauden herrian, euskararen erabilera, A, B eta D ereduko datuak, grafikoak eta abar. Bigarren atalean (Getxoko udala eta normalizazioa) laguntzak, zerbitzuak eta udal euskaltegiari buruzko informazioa aurkitu

daiteke. Beherago herriko euskararen alde lan egiten duten talde ezberdinei buruzko informazioa jarri dute. Bizarra Lepoan Euskara Elkarateak, Algortako Bertso Eskolak, Egizuk edota UK aldizkariak euren lekua edukiko dute hemen. Orrialdeak baditu ere iradokizunak jasotzeko toki bat, Euskara Zerbitzuaren posta elektronikoa (euskara.teknikaria@getxo.net) eta Elhuyar, Argia eta hainbat lekutara zuzenean joan ahal izateko linkak edo loturak.

Orrialdea euskaraz eta erdaraz idatzita dago, Joxi Arakamaren esanetan, "Integrazteko tresna baita". Web orrialde berri hau zuzentzeri emateko kanpaina martxan dago honezkerok eta udalak orrialdearen informazioa duten ordenagailuetarako alfonbrilak oparitzen ari da.

Euskarak badauka beraz bere leku berria Getxoko udaleko web orrialdean. Orain gizaratean aurkitzea baino ez zaio falta. Helburua hurbilago dago. m

Helbidea: [www.getxo.net/eus/zerbitzua](http://www.getxo.net/eus/zerbitzua). Azpian, bertan aurkitu daitezkeen orrialde batzuk

The screenshot shows the GETXO website interface. At the top, there is a navigation menu with options like 'Fitxategia', 'Edizioa', 'Ikusi', 'Gogokoak', 'Tresnak', and 'Laguntza'. Below this, there is a search bar and a list of links: 'Atzera', 'Aurera', 'Gelditu', 'Eguneratu', 'Hasi', 'Bilatu', 'Gogokoak', 'Historia', 'Posta', 'Inprimatu', 'Aldatu'. The main content area features a large 'GETXO' logo and a list of links to various sections: 'EUSKARA ZERBITZUA', 'Euskararen egoera Getxon', 'Getxoko Udala eta normalizazioa', 'Udal Euskaltegia UK aldizkaria', 'Algortako Bertso Eskola', 'Bizarra Lepoan', 'Agenda iradokizunak Loturak', and 'Euskara teknikaria @getxo.net'. Below the main content, there are three smaller screenshots of different pages from the website.



Hogeita hamar lagun inguru hurbildu ziren hitzaldira / Argazkia: Mikel Martinez

## Hitzaldia Ramon Saizarbitoria

### Bere azken liburuaren nondik-norakoak azaldu zituen idazleak Algortan

Bizarra Lepoan Euskara Elkarateak azaroaren 23an Ramon Saizarbitoria gonbidatu zuen bere azken elaberria den Gorde nazazu lurpean aurkezteko. "Irakurzaleen txokoan" deitutako zikloaren baitan, hilero autore bat ekartzen dute bere idazlanaren nondik-norakoak irakurzaleei azal ditzan. Azaroko txanda Saizarbitoria idazle ezagunari irten zitzaion, bere liburuaren aurkezpena 30 bat lagun hurbildu zirelarik.

"Ni ez naiz pertsona jaiola jende aurrean hitz egiteko, idazleok ez dut uste gauza gehiegi dugunik geure lanaz esateko, horretarako baitago lana" hitz hauekin liburuaren aurkezpena hasi zuen arren, modu sakon batean aztertu zuen bere obra eta bere traiektozia profesionala hamaika adibide eta anekdotekin. Gorde nazazu lurpean narrazio-nobela moduan defini daiteke, izan ere, bost narrazio bildu ditu bertan: "Gudari zaharraren gerra galdua", "Rossettiren obsesioa", "Marcel Martin-en aitatasun galdua", "Bi bihotz,

hilobi bat" eta "Asaba zaharraren baratza".

Ipuin bakoitzak istorio independente bat kontatzen duen neurrian gai ezberdinak azaltzen dira liburuan. Saizarbitoriaren betiko gai bat agertzen da, alegia, gizakion artean izaten den inkomunikazioa, nolabait zerk eragozten digun jende aurrean garen bezala azaltzeri. Bestetik idazlearen karrikatura egin nahi izan du Rossettiren pertsonaiaren bidez, Donostiako idazle honek onartzen baitu "idazleok dugun zeregin garrantzitsuenetakoa idaztea da, gure obsesio nagusia delako". Saizarbitoriak aberria maitatzeak askotan zama astuna bihurtzen denaren hausnarketa ere izan du hizpide eleberrian, adierazi zuenez "nire buruari galdetzen diot euskaldun izatea zergatik izan behar duen sufrikario bat, zergatik derrigortzen gaituen sufritze-maila horretara eta heroi izatera".

Saizarbitoria Ehun metro bezalako nobela ospetsu zein kalitatezkoak idatzeaz gain, 60ko hamarkadetik aurrera hedabide ge-

hienetan parte hartu eta Oh Euzkadi! literatur aldizkariaren eta LUR argitaletxearen sortzailetako bat dugu. Bere lehen eleberria 1969. urtean kaleratu zuen: Egunero hasten delako. Bere esanetan "euskara modernitate-ra ekartzea nuen helburu nire lehen nobela idatzi nuenean. Izan ere, garai haietan euskara nahiko klasikoa zen eta frantses zein gaztelazko nobela abanguardistak genituen eredu". Euskal literaturari falta zitzaion berritasun arnas hori betetzeko xedearrekin hasi zen idazten, eta orduetik hamar obra kaleratu ditu.

Aurkezpenaren hasieran Unai Elorriagak sarreraxo moduan idazle honen ekarpen berritzaileak gure literaturan suposatu zuena azpimarratu nahi izan zuen bere esperientzia propioak gogoratuz: "guk eskolan teoriarik ikasi genuen Saizarbitoria euskal literaturaren lehenengo berritzailetako bat izan zela eta gero bere liburuak irakurtzerakoan konprobatu ahal izan dugu hori egia dela". m

# LAINOA

Urgull 3, ALGORTA

[irakurgaiak]

## Vicente de Amezaga

### Mende hasierako Algortako idazle baten bizitza


Elías Amezaga idazle bilbotarrak bere azkenengo liburua aurkeztu zuen Getxon joan den azaroaren 27an prentsaurreko jendetsu batean, kazetari, udaleko ordezkari eta bere senideen aurrean. Liburuaren izenburua “Vicente de Amezaga (1901–1969)” da eta berarekin Elías Amézagak, hainbeste miresten duen Vicente de Amézaga Algortako idazlearen nortasuna eta lana aztertu nahi izan ditu. Aurkezpenaren data ere ez zuten edonola aukeratu, egun hartan Vicente de Amezaga idazleren urteurrena baitzen; bizirik balego 100 urte beteko zituen eguna.

Iñaki Zarraga Alkateak prentsaurrekoari aurkezpen labur batekin hasiera eman zion eta gero Elías Amézagak (abizen berbera eduki arren, ez du inolako harreman familiarrik idazle gorazarretua-

rekin) liburuaren pasarte labur bat irakurri eta liburu hau idazteko arrazoiak azaldu zituen. Liburuak Vicente de Amézagaren bizitzaren gertaerarik aipagarrienak kontatzen ditu. Gizon hau kazetaria izan zen “Gobela” egunkarian, Jose Antonio Agirreren laguntzailea eta lehenengo Gobernuako kidea. Gerra garaian Euskal Herritik alde egin behar izan zuen eta 1969an Venezuelan hil zen liburu ugari idatzi ondoren; haien artean El hombre vasco, Elías Amézagaren hitzetan, bere lanik onena.

Bere azkenengo liburu honekin lau-roguei urteko idazleak omenaldia egin nahi izan dio atzerrian hil zen euskal borrokalari honi. Elías Amezaga euskal idazleengan aditua da eta hirurogeitik gora liburu idatziak ditu. m

Elías Amezaga liburuaren egilea eskuetan ale batekin. / Argazkia: Mikel Martínez



Eskualdeko osoko dantza taldeek elkarrekin ospatu zuten urteurrena / Argazkia: Mikel Martínez

## Dantza Iratxo Gorria

### Urdulizko Iratxo Gorria dantza taldearen hamargarren urteurrena

Joan den azaroak 24ean Urdulizko Iratxo Gorria dantza taldeak bere 10. urteurrena ospatu zuen. Oso egun luzea izan zen eta adin guztietako jendeak hartu zuen parte. Arratsaldeko zazpitan Bizkaiko leku guztietatik etorritako dantza taldeek (Algortako Agurra, Getxoko Itxas-argiak, Gornizeko Aratzek, Erromoko Zasi Eskolak, Bakioko Itxas Aldek eta, noski, Urdulizko Iratxo Gorriak) ekitaldi erraldoia eskaini zuten. Eguna ixteko, gaueko hamabietan, urduliztarrek eta hara hurbildu ziren guztiak rock kontzertuaz gozatzeko aukera eduki zuten.

Amaia Elorrieta urteurrenaren ospakizunen antolatzaileen arteko bat izan da. Dantza taldea sortu zenetik ibili da neska hau Iratxo

Gorrian eta aitortu zigunez, inoiz ez zuen espero taldeak hainbeste urte irautea. “Dantza taldea sortu zenean pentsaezina zen; ezin genuen imajinatu hamar urte iraungo genuenik”. Izen bat aukeratu zuten (“Iratxo Gorria bataiatu genuen inolako arrazoirik gabe; izen polita iruditzen zitzaigulako”) eta ikastaroekin hasi ziren... Baina historia hasi baino ez da egin, atzean hamar urteko bide luze bat geratu bada ere. Gaur egun Iratxo Gorria dantza taldeak oraindik segitzen du betiko lanarekin eta betiko irakasleekin: Begoña Escarda eta bere ama, Itziar. Iratxo Gorriaren aretoa Urdulizko Eleizalde kalean dago, geltokiko frontoi zaharren ondoan. Gaur egun 30 ikasle inguru dituzte eta etorkizuna aurretik. m



[liburua]

## Errima errebeldeak


Roald Dahl-en liburua euskaratu du Joseba Santxok

Joseba Santxo Uriarte oso ezaguna Uribe Kostako euskaltzaleen artean. Baina ezagutzen ez dutenentzat, esan dezagun Industria Delineazioa ikasi zuela Barakaldon eta Euskal Filologian lizentziatu zela Deustuko Unibertsitatean. Gaur egun Algortan bizi da eta Zubia argitaletxean egiten du lan. Bertsolaritza alorrean denetariko lanak egina da Joseba: antolatzailer, aurkezle, gaijartzaile, bertso jartzaile, bertsolari, txapelketetako epaile... Haurrentzat liburu bat idatzi zuen 1995ean: Ditxosozko ditxolaria, eta hemen aurkezten dugun Errima errebeldeak hau, bere lehendabiziko itzulpen lana dugu. Liburuaren egilea Roald Dahl Galesko idazlea da. Roald Dahl-ek bere bizitzan zehar makina bat liburu idatzi zituen,

mundu zabaleko irakurle gazteen artean berehalako arrakasta lortu zutenak. Bere liburuetan trebezia handiz hankazgoratzen du nagusiek eraikitako mundua, umorea, ironia eta morboa tresna dituela. Helduen literaturan ere oso ezaguna izan zen, baina arrakastarik gehien haurrentzat sortutako lanek eman zioten.

Sei ipuin unibertsal eta klasikoren bertsio "errebeldeak" eskaintzen zaizkigu "Errima errebeldeak" liburuan: Mari Errauskin, Jon eta babatxo miragarria, Edurne Zuri eta zazpi ipotxak, Urre Kizkur, Txanogorritxo eta Hiru txerrikoak. Ipuinak bertsoz idatzita daude, errimaturik, eta kontakizunetan umorea eta ironia dira nagusi. Liburua Quentin Blakeren irudi erakargarriekin ilustraturik dator. m

Sei ipuin unibertsal eta klasikoren bertsio "errebeldeak" eskaintzen zaizkigu liburuan



Mikel Martinez



Haima bat paratu zuten Geltokiko plaza erdian, bertan ipuin eta olerkiak entzun ziren, tea dastatu... / Argazkia: Mikel Martinez

## Elkartasuna Getxon

Laugarren urtez "Getxotik mundura" elkartasunerako topaketak egin dira

Lankidetzaz, kultur ugaritasuna, justizia edo elkartasunaren moduko baloreak gure gizartearen hedatzea eta haien gainean hausnarketa egitea izan dira azaroaren 24 eta 30 bitartean egin diren topaketa hauen helburuak. Egitaraua urtetik urtera aberatsagoa izaten da eta aurten adibidez, GKEen boluntarioentzako ikastaroa egin da, Sahararen eguna ospatu (goiko argazkia) edota GKEen azoka. Azoka honetan, Getxoko Udalak diruz lagundutako hamalau GKEen proiektuen era-

kusketa ikusi ahal izan zen. Topaketak urteko boluntarioaren sarietan banaketarekin amaitu ziren. Sariok herrian laguntza behar dutenen alde beharrean dabilzan boluntarioen lana saritu nahi dute. Aurten Ireki-Alkaratsunaren Aldeko Gazteak elkarteak eta Tatiana Urien gaixo psikikoen aldeko elkarteak jaso dute saria. 14 eta 23 urte arteko gazteek osatzen dute Ireki elkarteak. Tatiana Urienek zortzi urte eman ditu Uribe Kosta elkartearen beharrean. m

## “Musika norbera eta mundua hobeto ezagutzeko da”

**Bere lehen disko mitiko hura (*Hautsi da anphora*) plazaratu zuenetik hogeita bat urte igaro dira honezkero. Orain *Hurrengo goizean* izeneko disko berri zoragarria plazaratu du oñatiar honek bere betiko zaleen gozamerako.** Testua: Itziar Benedé & Maitane Burusko / Argazkia: Mikel Martinez

—Musika, aurrera mugitzeko bide bezala definitu duzu behin baino gehiagotan. Hurrengo goizean, zeure disko berrian zein aurrerapauso eman nahi izan duzu?

—Esaera hori bota nuenetik (aurreko disko-tik), garbi neukan berriz ere metodo horrekin jarritu nahi nuela. Hain zuzen ere, elkarrekin grabatzea eta gehiago sakonera egitea. Iruditzen zait kasu honetan asko zabaldu dudala; izan ere, poeta batek esaten zuen bezala, ezjakintasunaren joera hartu nahi izan dut, lehenengo arnasa gordez. Hori izan da nire gogoa eta uste dut lortu dudala, benetan pozik nago egindako lanarengatik. Nik esan ohi dut kantatzea eginkizun metodiko ez bada, mundua eta norbera hobeto ezagutzeko dela.

—Alde batetik disko honetan bat-batekotasunaren eta naturaltasunaren bila ibili zarela idatzi da eta beste aldetik, lan handia egiteaz gain musikajole handien laguntza jaso izan duzu. Ez al da kontraesana?

—Disko honi buruz hitz egiterakoan gertatzen zait dena kontraesan moduan ateratzen zaidala. Alde batetik iruditzen zait oso gertua eta naturala izan daitekeela eta beste aldetik, elaborazio handikoa dela. Aurreko diskoan —Dabilen harria— ikasi nuen zenbat eta musikari handiagoeekin lan egin, errazagoa dela kantuaren mailara heltzea. Eta honetan ere egin nahi izan dut hori: ahal izan diren moldaketa gutxienekin musikoan artean lortutako momentu horiek harrapatzea. Halaber, nik bizi izan dut alaitasunez diskoa, baina pertsona askok malenkolia handia topatzen diote diskoari.

—Berrito ere bi musikari handirengana jo duzu, izan ere, Ben Monder kitarra joleak hirugarren aldiz lagundu zaitu eta Kenny

Wolles bateri joleak birritan. Berrikuntza bezala Lou Reed-en taldeko baxu jolea, alegia, Fernando Saundersen parte hartzea izan da. Nola lortu zenuen zeurekin lan egitea?

—Nire anaia gazteenari, Jonan Ordorikari zor diot. Berak aspaldidanik ezagutzen du musikari den Fernando, elkarri idazten baitiote. Lou Reeden kontzertu baten ostean nire anaiak Dabilen harria diskoa oparitu zion Fernandori eta honek asko gustatu zitzaioela idatzi zion orain dela bi urte. Ez nion garrantzirik eman, uste nuelako kortesia kontuak zirela. Baina disko hau hasteko ginenean, baxu jolearekin zalantzatan geunden eta harremanetan jarri ziren biak, eta Fernandok diskoa grabatzeko baietza eman zuen. Gainera, gure mailara etorri zen, ez zuen bere burua nabarmentzera etorri. Guretzako ohore handia da gure artean egon izana.

—Hurrengo goizean lanaren aurretik zer dago?

—Izen hori aukeratu nuen niretzat giro musikal bat adierazten duelako, non musikariek ari diren inor konbentzitzeko asmorik gabe, beraien artean kantua ondo jotzen, musikarekin gozatuz. Niri gustatzen zaidan musika asko honela egina da eta horregatik etorri zitzaidan burura izen hau. Nolabait izango litzateke lehengo musika egin eta gero pentsatzea eta ez alderantziz. Agian, honek irakurketa asko izan dezake, baina nik eman nahi izan diodan zentzua honakoa da: festaren gauean edo jendea aurrean jotzeak dakarren adrenalinarekin ez dago egina, baizik eta hurrengo goizean sortua.

—Lotsati izatearen fama baduzu. Nortasun hori edukitzea eta musikari ezaguna izatea noraino dira bateragarri?


—Nire lanarekin (diskoak sinatzea, elkarrizketak egitea, pentsurrekoak eskaintzea...) ez daukat arazo handirik. Nik beti esan dut musikak nire pasio handiena izan behar zuela, ni eszenatokietara ateratzea lortu du eta.

—Musikatik bizitzea oso zaila da, are gehiago Euskal Herrian. Hori gerta ez dadin zein ikusten duzu bide eraginkorragoa Durangoko Azoka ala Internet?

—Ez dakit noraino kontrajartzen diren. Durango azoka ttipi bat da eta Internet merkatu erraldoia den neurrian ezin dira parean jarri; zinez ezberdinak dira. Durangoko Azoka gaur egun erakustoki bat da, asko goraiatzen dena, baina nik ez dut uste serioski aztertzen denik. Internet, aldiz, erraldoia da eta oraindik ez dakigu zer gertatuko den. Batzuek esaten dute hori izango dela txikienez aterabide bat, baina beste batzuek esaten dute dagoeneko indar handiek hartuta dutela sistema guztia. Hala eta guztiz ere, abantaila ikaragarria da Internet, oinarrian behintzat edozeinek ezagutu ahal zaituelako.

—Hogeita bat urte pasa dira honezkero mitiko bihurtu den zure lehendabiziko diskoa, *Hautsi da anphora*, kaleratu zenuenetik. Zein da Ruper Ordorikak euskal kantagintzari egin dion ekarpen nagusia?

—Ez dakit erantzun daitekeen, nik ez dut termino horietan pentsatzen. Musikari askori gertatu zaigu mutikotan kantak egiten hasi ginenean, ez genuela nahi genuena entzuten. Hori izango litzateke nik egiten dudana: entzun nahiko nukeen musika sortzen saiatzen naiz. <sup>m</sup>







# Santi Yañiz



La hogei urte daramatza Santi Yañizek kamera aldean. Betidanik free lance moduan egin izan du lan eta horrela jarraitzen du gaur egun ere. Batez ere, natura eta mendia jorratzen ditu bere argazkietan eta gai horietan aditua da. Euskal gaia, ikuspuntu etnografikotik landua, bere beste espezialitateeko bat da.



Gauzak horrela, urteen poderioz itzelezko artxiboa osatu du. Bere argazkiak puntako aldizkarietan ikusi daitezke, hala nola, Península, El Mundo de los Pirineos, Geo, Pays Basque Magazine... batzuk aipatzeagatik. Aldi berean argitaletxeekin egiten du lan. Aspaldian lehiaketetan parte hartzeari utzi bazion ere, sari mordoa eskuratu zituen bere garaian, adibidez, Photopress. Bestetik, Santik aldizkari espezializatuetan eta Deia egunkarian mendiari buruz idazten du. m



**“Abadeak baino hobeto bizi zara” esaten da pertsona ederto eta lan handirik egin barik bizi dela adierazteko. Nonbait gauzak aldatu dira eta gaur egun gorriak ikusten dituzte elizgizonak euren zereginak aurrera atera ahal izateko. Aitor Solabarrieta San Martin elizako eta eskualdeko abaderik gazteenarekin ostegun batez egon ginen, bera eta bere lan egun arrunt bat zelakoa den ezagutzeko.**

Testua: Jokin Aspuru / Argazkia: Mikel Martinez

Hitzordua azaroaren 29an, goizeko hamarretan Algortako San Martin elizan Aitorrek duen bulegoan. Puntual heldu gara, baina garbitzailea baino ez dugu hemen topatu. Berari Aitor non egon daitekeen galdetu diogu eta “elizan egongo da, ETBkoak etorri dira eta” erantzun digu adeitsu baina bere zereginak eten barik. Elizara abiatu gara eta bai, han hortxe dago Aitor telebistakoak izango diren bizpahiru lagunekin berbetan. “Koroak hemen abesten du beti” esaten dio Aitorrek errealizadore itxura duen gizonari. “Eta ezin al da lekuz aldatu? Hor kamera bat kokatu beharko genuke” erantzun dio besteak. “Ba, ez dakit... ah! zuek UKkoak izango zarete, ezta?” gudan erreparatu du “segituan naiz zuekin, zoazte bulegora”. Atzera bulegora abiatu gara. Mikroa prestatu, koaderno atera eta boligrafoari tapoia kendu. Aitorren zain gaude bere ospitale koloreko bulego zaharkituan. Han hemen Caritas-en poster horituen bat. Bost minutu igaro dira eta

Aitor atzerapenagatik barkamena eskatuz sartu da atetik “laster meza bat grabatu behar dute hemen ETBkoek. Euskaraz izango da eta ni inguru honetan euskaraz meza esateko gai naizen abade bakarra naizenez... ba hori, tokatu zait. Inspektzioa egitera etorri dira eta eurekin egon behar. Barkatu”. Aitor mutil gaztea da, 32 urte baino ez ditu. Astiro eta argi egiten du berba Ondarruko euskara alai eta ederrean. Garbi dago, oratoriaren artea menderatzen du.


Eskualdean aldizkari bat egiten dugula azaldu diogu: erreportaiak, elkarrizketak... egiten ditugula euskaraz eta oraingoan abade baten lana zertan datzan azaldu nahi diegula gure irakurleei. Baina lehenengo gure belaunaldiko gazte batek zelan edo zergatik erabakitzen duen abade izatea jakin nahi dugu “Ondarruko ikastolan ikasi nuen nik. Gero lagun asko Derioko ikastetxera joan ziren batxilergoa ikastera. Harrezkero ez zen seminarioa Derio. Internatua zen eta nik ere hara joan nahi nuen, herritik urtete-

ko edo. Ama konbentzitu nuen eta hara joan nintzen. Hango zuzendariak abadeak ziren eta hori izan zen elizarekin lehenengo harremana. Hamalau urte nituenean hara joan zen Ekuadorren misiotan egondako abade bat. Han bizitakoa kontatzen zigun. Gizon hark gure bizigiroan klabe berri bat sartu zuen, misiolarien klabea, abade izatea behartsuenei laguntzea zela. Harrezkero gazte batzuk konpromiso barik gure ardura horiek aztertzeke, gure interes horiek sarkontzeke elkartzen hasi ginen. Denbora aurrera joan zen eta azkenean abade horrek inoiz abade izatea pentsatu ote nuen galdetu zidan”. Magisteritza ikasketak amaitu zituen Aitorrek, gero bost urtez teologia ikasi eta bi urtez Sestaon pastoral esperintzia egin ondoren abade ordenatu zuten.

Atea jo dute, eta gure berbaldia eten. Itxura latinamerikarra duten gazte bi dira. Aitorrek atzera eskatu digu barkamena eta atea erdi zabalik utzirik eurekin atera da. Pisu bila dabilzala esaten diotela aditu dugu


## “Abade izatea, behartsuenei laguntzea da”

“ba auzoan 70.000 pta.gatik bat badagoela badakit” erantzun die Aitorrek eta berbetan jarraitu dute. Guregana itzuli denean auzoan gero eta kanpotar gehiago daudela azaldu digu, batez ere Kolonbiakoak eta Ekuadorrekoak, baina baita Peru edota Afrikakoak ere. Fededunak izaten direnez zuzenean jotzen dute auzoko elizara laguntza eske, pisua dela, legezkatze paperak direla, arropa... Orain Aitor inmigrante hauek guztiak talde moduan antolatzen saiatzen ari da eurak elkarri lagundu diezaioten eta etor daitezkeen besteei ere bai. Astero egoten da Aitor pertsona hauekin, baina gehienetan eliza bakoitzean dagoen Caritas erakundeko taldeetara bideratzen ditu. Baina zera argitu digu “zuzeneko laguntza, momentua konpontzeke ondo egon daiteke, baina nik uste dut garrantzitsuagoa dela benetakoa erabakiak hartzen diren lekuetan egotea, han egon





02



03

behar dugu kristauok. Gizartearen arazoetatik kanpo dagoena ezin da Jesusen jarraitzaile zintzoa izan”.

Oraingoan telefonoak jo du baina Aitorrek, apur bat lotsatuta, ez du hartu gurekin berbetan jarraitu ahal izateko. “Eguna beti laburregia da niretzat, ez dit danetarako ematen. Hainbeste dira egiteko dauden gauzak!”. Eta egia da, hainbat gauza eta hain abade gutxi. Hiru abaderen artean Getxoko Andra Mari eta San Martin elizako kontu guztiak eroan behar dituzte, gainera gaur Aitorrekin eliza ondoko etxean bizi den abadea gaixorik dago, lan bikoitza. Aitor egunero goizeko zazpietan altxatzen da, zazpi eta erdietan otoiña egiten du eta gero elizara abiatzen da bere zereginetara. Ordu bietan bazkaltzen du eta laurak eta erdietan elizako atek zabaltzen ditu. Egunero zazpi eta erdietan esaten du meza eta gero beti batzarren bat dauka. Ez da sekula hamarrak baino lehenago etxeratzen. Egunero egiten du lan, astelehen goizak eta hamabostean behin igande arratsalde bat baino ez ditu libratzen, udan hilabeteko oporraldia. Meza esateaz gain egunero despatxoa egin behar du “jendea bataioa zein ezkontzatarako paperak egitera etortzen da edo arazoak dituztenean aholku eske, edo beste barik berba egitera”. Aitorrek be eskualdeko sei elizatako gazteen ardura du eta astero elkartzen da eurekin. Bestetik eliza inguruko aistaldetako kideekin ere astero elkartzen da. Eta lehen aipatu dugun moduan inmigranteekin ere egiten du lan.

Lan hau guztia egin ahal izateko indarrak inondik atera behar dira. Fedea izango dela pentsatu dugu eta Aitorri galdera hau luzatu diogu: ez al daukazu zalantza izpirik? zelan sinistu daiteke Jaungoikoarengan? “Bizitzan ezertan ez dago ehuneko ehuneko ziurtasunik eta fedean ezta ere. Eta neuk ere nire zalantzak eta krisiak izaten ditut. Baina niretzat fedea eguneroko kontua da, bizi-modu bat, behartsua laguntzea, bizi garen gau ilunean konfiantza izatea... buruari baino bihotzari entzutea”.

Bagenituen galdera gehiago, baina bat batean atetik gizon bat sartu da “non dago argiaren kontadorea?” Aitorrek ez dakiela esan dio, baina nahi izanez gero bilatzen lagunduko diola esan dio. Eta guk erredakziorako bidea hartzeko momentua egokia dela iritzi diogu. m

01 > Aitorrek egunero esaten du meza, Getxoko Andra Mari edo Algortako San Martin elizan. 02 > Etorrin askok elizara jotzen du zuzenean laguntza eske. 03 > San Martin elizan ETBk meza bat grabatu behar du, Aitor telebistako errealizadorekin bildu da goizko lehenengo orduan prestaketa lanak egiteko. 04 > Aitorrek sei elizako gazteen ardura ere badauka eta eurkin astero elkartzen da. 05 > Zaila da Aitorrekin bost minutu jarraian berba egitea 06 > Ezkontzak, bataioak... Aitorrek egunero egin behar du despatxua 07 > Mezak aurretik prestatzen ditu, astero goiz bat dedikatzen dio honi.




04



05



07



06

# Kale gorrian lanean


Hotza, beroa, euria eta eguraldiaren gogortasun guztiak pairatzen, asko eta asko dira gure kaleetan beharrean dabilen pertsonak. Gehienak ondo moldatzen dira. Lan guztiak bere alde onak eta txarrak dituzte; bere beriztasunak eta bitxikeriak, pasadizoak eta zorigaitzak. Hona gure kale gorrietan lan egiten duten lagunen bizipenak.

Testuak: Javi G. del Herrero / Argazkiak: Mikel Martinez



Javi, 39 urte  
Janari banatzailea

**Historia:** Sopolako aurpegiarik ezagunenetarikoa da, urteak baitaramatza janaria banatzen ziklomotorrez. Berak ondo baino hobeto daki zer den kale gorrian lan egitea. **Zer da kalean lan egiteak daukan txarrena eta onena?** “Eurria egiten duenean berdin-berdin atera behar dugula janaria banatzen eta arriskutsua izateaz gain, oso desatsegina da. Onena, denbora arin joaten zaidala errepidean”. **Nahiago zenuke bulego edo lantegi epel batean lan egitea?** “Ez. Lan honek jendea ezagutzeko eta lagunak egiteko aukera ematen dit eta hori ezin da lortu lau ormen artean lan egiten”. **Esaldia:** “Kalean lan egiteak herriko jendearekin ezagutzeko aukera ematen dit”. **Pasadizoa:** “Behin, soka batez lotuta auto bat tiraka zeraman furgoneta batekin egin nuen topo. Nik ez nuen soka ikusi eta handik pasatzerakoan kriston kolpea hartu nuen. Zorionez onik atera nintzen eta bidea jarraitu ahal izan nuen. Harrezkero “El cuerdas” deitzen didate”. m



Hugo, 29 urte  
Peoia

**Historia:** Hugo Sopolako peoia da eta kalean lan egiten du, lubakiak irekitzen, kableak eta hodiak sartzten...; lan gogorra zalantzarik gabe, bereziki eguraldi txarra egiten duenean. **Zer da kalean lan egiteak daukan txarrena eta onena?** “Eurria eta hotza egiten duenean lana gogorragoa egiten zait baina eguraldi onarekin oso atsegina da kalean lan egitea eta jendearekin kontaktuan egon ahal izatea”. **Nahiago zenuke bulego edo lantegi epel batean lan egitea?** “Denda batean lan egin nuen eta beraz baditut ezetz erantzuteko arrazoiak”. **Esaldia:** “Kaleak apurtzen ditugunean kableak sartu ahal izateko, jendea asko kexatzen da, baina Iberdrolarentzako lan egiten duzula azaltzen duzunean errespetu gehiago erakusten dizu”. **Pasadizoa:** “Asko. Behin ezagutzen ez nuen mutil batek pika eskatu zidan eta beharrean hasi zen nire ondoan. Lan egin nahi zuela zioen eta borondaterik, behintzat, ez ziztaion falta”. m



Jesus, 37 urte  
Lorezaina

**Historia:** Jesús, Getxoko udalarentzat lan egiten duen SEGEMA enpresako langilea da; herriko lorategiak eta zuhaitzak zaintzen dituen lorazaina. **Zer da kalean lan egiteak daukan txarrena eta onena?** “Onena ia dena; aire garbia, jendearekin egon ahal izatea... Eta txarrena diozu? Egia esan ez dut uste alde txarrik duenik. Agian, eguraldiaren gogortasunak”. **Nahiago zenuke bulego edo lantegi epel batean lan egitea?** “Ez dut uste. Zortzi edo hamar ordu lau horma artean sartuta egon behar izatea ezin da osasungarria izan eta langile asko umore txarrez ateratzen direla dirudi. Bere alde onak edukiko dituzte lan horiek ere, noski, baina ez, nik neuk ez nuke lanbidea aldatuko”. **Esaldia:** “Gustukoa dut naturan lan egitea”. **Pasadizoa:** “Sarritan olgetan dauden umeak ur dorreetara hurbildu eta ikutzerakoan, nahi gabe, piztu egiten dituzte; blai eginda geratzen dira gero. Lorategietan jolas bat baino gehiago horrela amaitu da”. m



Gontzal, 20 urte  
Gasolindegiko langilea

**Historia:** arotza izateko ikasi baina momentuz bada ere, Gontzal gasolina banatzen dabil. Berari ere ez zaio axola kalean lan egitea..., hotzik egiten ez duen bitartean, behintzat. **Zer da kalean lan egiteak daukan txarrena eta onena?** “Atsegina da haizea sentitzen egotea. Hori da onena zalantzarik gabe. Txarrena negua, hemen, gasolindegian, inon baino hotz gehiago egiten baitu”. **Nahiago zenuke bulego edo lantegi epel batean lan egitea?** “Ez, kalean lan egitea nahiago dut, baina Euskal Herrian negua gogorra da”. **Esaldia:** “Gasolindegi batean mota guztietako jendea ikusten du batek. Hona etortzen diren gehienak jatorrak dira, baina pertsonaia xeble handiak ezagutzeko aukera ere izan dut”. **Pasadizoa:** “Orain dela aste pare bat emakume bat etorri eta zera galdetu zigun; “Gasolina eurosuper delakoa eurotan ordaindu behar al da?” Horrelako gauzak gertatzen dira; egun hartan barre ederrak egin genituen!”. m



José Luis, 63 urte  
Udaleko kale behargina

**Historia:** hainbat lanetan egon ondoren, gaur egun José Luis “Vialidad”eko departamentuan lan egiten du Getxoko udalean zebra-bideak eta errepideko marrak margozten eta hiriko ostilamendua konpontzen. **Zer da kalean lan egiteak daukan txarrena eta onena?** “Txarrena eurria inolako zalantzarik gabe, eta onena, askatasun gehiagorekin lan egin ahal dela”. **Nahiago zenuke bulego edo lantegi epel batean lan egitea?** “Badaramatza urte asko behar egiten eta lan mota asko ezagutu ondoren, kalean aritzea nahiago dudala ziurtatu diezazuket”. **Esaldia:** “Nire ustez jendea arinegi doa. Jende askok begiratzen gaitu baina ez gaitu ikusten, edo ikusten bagaituzte ere, ez gaituzte errespetatzen”. **Pasadizoa:** “Pasadizoa baino kexa bat: getxoztar askok herria dotore eduki nahi dute, baina sarritan gurekin haserraten dira egiten dugun beharrak trafikiko arazoak sortzen dituelako. Gezurra dirudien arren, jende askok autoetatik iraintzen gaitu”. m



Mikel, 29 urte  
Kamioi gidaria

**Historia:** lan ugari ezagutu ondoren, orain Mikel kamioi gidaria da; egun osoa hara eta hona altzariak banatzen eta eguraldiaren kapritxoak pairatzen. **Zer da kalean lan egiteak daukan txarrena eta onena?** “Lan honek daukan txarrena eguraldia da; eurria eta hotza egiten duenean oso desatsegina baita kalean egotea”. **Nahiago zenuke bulego edo lantegi epel batean lan egitea?** “Baldintza berberetan, kalean lan egitea nahiago dut inolako zalantzarik gabe. Kalean batek askatasun gehiago duela dirudi”. **Esaldia:** “Ikusi beharko zenituzke erretiratzeko ditugun koltxoi zaharrak; sarritan dituzten zikinak, mota, ehundura eta kolore guztietakoak dira. Eta kolorea ikusita zertarako erabili izan diren asmatu daiteke... Maitasunaren arrastoak, alegia”. **Pasadizoa:** “Batuetan lana oso desatsegina izan daiteke. Inoiz kendu ditugun koltxoiak hain zikinak zeuden ezen jendeak egunkarietara estalita eman dizkigu”. m

[akabuko punte]

# FernandaAio



**Oingo onetan, Fernanda Ayogas eon gara berbetan. Fernanda Sutzun (Leioan) yaio sen 1909an. Gaste sanean Negurin ibil sen bearren. Algortako Iturribarrire yoan sen gisona bertokoa salako eta orduti an bixi da. Ona emen Fernandak konta doskusan gusetariko batzuk.**

Testua: Urtzi Iglesias / Erretratua: Mikel Martinez

—Non yaio sintzen?

—Sutzun, San Bartolomen ondon, gure ama ixen da Plentziko eta aita Lujuako. Danak erderarik bapes, amak peres, aitak peres eta nebek peres, batek peres, danak eukera, dustik. Neuk pe euskera dana, erdera inoperes. Se ingosu ba, aguanta in bear. Es dogu yakin ta yakin barik selan ingo du ba, esin eiñ. Nebak yoaten siran bearren eta an ikesi deue erdera, fabriketan. Es dekot pa aista bat eta neba bat baiño estekot, bat Mungin bixi da ta bestea an Leioan. Nik estudia barik ikesi nendun erdera, Negurin bear iten nendun txaletan, bai interina, amasortzi urtegas ta, eiñ erderas señorak ta neu adi eon.

—Eta gisonak be euskeraz?

—Yakien, baie astu yakon Afrikan eon san lau urtean ta astute etor san gisona; klaro, espadosu eiten astu iten yatzu gero. Bere amak-eta euskera danak, baie berak es; iteutsen amak euskera ta: “Juan, estakisu berba eiten ala? Bai, baia astu in yat”. Lau urte eon san milin, afrikan morokas ta astute etor san euskera. Amak iteiotzen: “ba ikesi in bear de euskera, e? Nik estakit, ori esateiotzen, selan esangotzut es badakit...”

—Seme alabek badakie euskera?

—Danak dire emen asite baie estaki inok pe.

[bertako euskeran ganen]

Geurik goxera kendu euskera. Asun etor san ta: “Asun, ser pasten da? Maistrak yo iten dosku, es da in bear euskera”. Klaro euskera yakien ta alkarregas eiñ euskera. Yon nintzen ta maistrak que es da iten euskerarik oiñ, iten duenak fuera irten da. Nietak estudiaten dabil euskera, egunero bilbora estudiaten, badekos amasortzi urte, ia ingo ditus. Ori da txikerrena, besteak sarragok dire, neskato sarrenak dekos ogetabost urte. Eta ori da txikerrena, amasortzi urteko.

—Eta oiñ be euskera?

—Oiñ gure dot erdera iñ euskera baiño; erdera fasilao urtetan da eukera baiño, euskera torpeau da berbaiteko. Oiñ badator nire ausoko ta euskera iten deu beti, ta esanotzon: “Ines, astu in datzu erdera? Bai badakit, baie nik gure dot in euskera erdera baiño”,

amasortzi urtegas, gerrara eroiezen. Nire gisona trintzerak iten. Tzarrao tzarrao, euki bost ume ta tiro bateti, tiro besteti, bost umekas nik bakar bakarrik emen, gau dustin neure umekas eta gisona orti trintzerak iten.

—Gisona kanpon ta seu etzen.

—Basorik basori ibili trintzerak iten nire nebak eta nire gisona. Gau baten etor san gurera, etzera, “nor dabil goxeko iruretan”. Eskapa iyen, “se pasten da ba? Eskapa in yot”. Kapitaniak garrote emoteotzen basoti, garrote limpio, eta esautzon besteri: “ni banoa etzera, es esan iñori”. Eskapa in etzera eta urrengo egunen sartu san emen.

—Eta gerra osten ser?

—Gero bear barik, ni bearren ibilten nintzen

“Asun, ser pasten da? Maistrak yo iten dosku, es da in bear euskera”

“Oiñ es dao eser gero; oiñ alperrak, es dao geiaorik”

alan.

—Algortara selan etorten siñean?

—Oiñes etorten sen beti Algortara, Algortako plasara oiñes beti. Se Negurin es san dendarik eta asao etor bear gausak ersten. Klaro, an puntan bixi, bason... An goien bixi nas, bason. Dusti arbolak, baie kanbiata dao total, oiñ pisok eta dusti...

Bider asko yon nas bedarran bille beientzat aiten solora bedarrak ekarteko. Gure aita etorten san Leioatik ona beiakana. Or ibil san bearren, or dao kantera bat, kantera dekosu or. Barrenoas ikusten gendun an. Se bagoiak Areatatik etorten siren orra botateko arrik eta area ta dana. Area kargaten, arrik; obrak iteko, etzek iteko, ladrillek egon san, baie akaba iten da gero dana, oiñ gause eleganteo daus. Ordun bagoiak, oiñ lengon modun es dao, oiñ kanbiata dao dana.

—Selan bixi sendun gerra?

—Gerra emen? Tzarto. Nire neba yoan sen

len Negurin eta etorten san bisitaten, neure gisonak es deko bearrik. Es dekola! Ba neuk emongotzat bearre, fabriketan.

—Asko aldatu dires gausek lendik ona?

—Bai, oiñ es dao lengorik esebere. Ni arrastaka sorutan bearren, mantentzeko danak, goizeko bostetan altza in bear sorutan bear iteko. Nire ausoko esin arotza ixen, ementxe eukien maia bat bear eiteko, karroak iten, len es san ixeten kotzerik es esebere, oiñ dana kotze. Oiñ es dao eser gero; oiñ alperrak, es dao geiaorik. Ni eon nas akordaten nire aitagas ta amagas, ondo akordau, oiñ lengorik es dao baperes, kanbiata totalen dana. Ogi beres, ogi baltza eta goxo yaten gendun sei perragaitik, es oiño. Useiñe deko bakarrik, baie ez ogi ona dalako.

—Zer yaten senduen len?

—Ordun indabak eta porrusalda goxo goxo yaten gendun; oiñ buenas tajadas yan, ondo bixi eta bearrik es eiñ, ori iten deu jentek oiñ, ta ori es dao ondo, se betiko es da aite ta ama,

## Gureberbakere 6 ZER ESAN

Testua: Xabi Bilbao

Konformidade eskátuten:

- ezta?
- bai, ezta? ez, ezta?
- ézta hálan?
- ézta nitiñotelez? (nik diñoten lez)
- éztñot égi?

Konformidade émoten:

- Bai, hálan / hólán da.
- Hálantxe da.
- Horitxe diñot nipere (nik bere).
- Ointxe esan dozu égi.
- Konfórme.
- Konfórme nau.

Deskonformidade:

- Eztáipa... (eztakit ba).
- Bueno ba, zupáñoizu... (zuk badíñozu).
- Eztoz íkusten nik hólán.
- élei(te) ixen hólán (ezin leitike..)
- Hori élei ixen.
- Kéba, pentza bérez.

Kóntu áukiteko ésatén:

- Kóntuz!
- Kóntuz ibilli!
- Kóntuz ibilli gero!
- Kóntuz gero hórrekaz lagúnekaz!

Zézeri inportantzi kénduten:

- Bardin da / bardin daust niri.
- Bardin daust bat zein béste.
- Bardin da módu baten zein bésten.
- Ezta inpórta hori.

ADIBIDEK:

— Tatuaje bat íngo nauke, baia péntzaten nau, ze gero betiko lótzén da ta...  
— Hálantxe da, bai. Gero élei kendu, estropájoaz bérez.

— Pásaten dana da jéntek eztaule anímaten. Ezta égi ala?  
— Eztáipa, ánimu jéntek ber dau, ez jugadórak.

— Zé tatuaje in gúre dozu ba?  
— Dragoi bet edo; ítxikostezu diru?  
— Nik? Pentza bérez. Eskatúotzezu zure aitxeri.  
— Bai, aitxek émongo daust tatuaje baterako.  
— Niri bardin daust nori eskátuten dotzézun.

— Atlétiez eztau ze inik, nik kasik gúrau dot Coruña



## Txapelketa Nagusiaren historia

Zu, eskualdeko bertsozale jator hori, aurtengo Txapelketa Nagusiko saio batera Fredi Paia animatzera joan baino askoz lehenago (kontuz hitz honekin, nahikoa potogarria baita), euri asko eta asko egin du bertso txapelketen inguruan. Hemen Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusien historia errepatatuko dugu, handi-handika baino ez bada ere. Hiru arotan bana daiteke Bertsolari Txapelketa Nagusien historia: gerra aurreko txapelketak, Euskaltzaindiak antolatutakoak eta Bertsozale Elkartek antolatutakoak.

Testuak: Algortako Bertsolari Eskola

Gerra aurreko txapelketak (1935-1936) 1935a baino lehen lehiaketak –Santo Tomasetakoak nahikoa ezagunak izan ei ziren– eta Lore Jokoak –hauek literatur lehiaketak ziren, bertsoa ez ezik olerkia ere lehiabidean jartzen zutenak– egon baziren ere, adituen iritziz 1935eko txapelketa har daiteke txapelketen aroaren abiapuntutzat.

Lehen txapelketan, 1935ekoan alegia, Euskal Herri osoko 20 bertsolari bildu ziren, kanporaketarik jokatu barik. Iñaki Eizmendi, Euzkadi egunkarian Basarri goitizenez sinatzen zuen kronista gaztea nagusi zuen.

Bigarren txapelketan, 1936an hain zuzen, 30 bertsolari lehiatu ziren finalerako 10 lekuak hartzearen. Finalisten artean, taberna zuloetatik ateratzen zen arlotxe buruargi bat zegoen, eta orduko gazte zintzoentzako eredu txarra izango zen arren, berak irabazi zuen txapela. Bizi osoan bildutako merituez gainera, Manuel Lujanbio “Txirrita”k bertso zoragarriak bota omen zituen Donostiako Victoria Eugeniaren (anekdota modura esango dugu Maialen Lujanbio egungo bertsolari apartak ez duela lotura zuzenik Txirritarekin Lujanbio abizenaren bitartez, bai osteraren abizenaren aldetik).

Euskaltzaindiak antolatutako txapelketak (1960-1982)

20 urteko gerraondoaren ostean, Euskaltzaindiak lortu zuen Bertsolari Txapelketa bat (“Campeonato Mundial de Bertsolaris” zioen orduko kartelak) antolatzeko baimena 1960an. Aurreko kanporaketetan 56 bertsolarik hartu zuten parte, eta 10 finalistetan Basarri gailendu zen, bigarren.

1962, 1965 eta 1967ko txapelketetan Manuel Olaizola “Uztapide” izan zen irabazlea. Uztapide bertsolari maitatua kantatuta zegoen 1936ko finalean, eta baita 1940-50 urte latzetan Basarriekin batera herriz herri.

Berrikuntza handi bat ekarri zuten 1980 eta 1982ko txapelketek. Hobeto esanda, Xabier Amurizak ekarri zuen berrikuntza txapela jantzi zuen urte haietan. Ordurako ezagunak ziren Zamorako kartzelatik bidalitako bertso ederrak, baina gutxiak uste zuten bat-batekotasunean halako maisutza erakutsiko zutenik. Eta bizkaitar kontziente moduan, euskara batuan kantatu zuen, hauetarako horrek hegoaldeko bati neurrian suposatzen dizkion zailtasun guztiak gaindituz. Bere lanak egungo bertsolaritza modernoaren oinarriak ezarri zituen.

Bertsozale Elkartek antolatutako Txapelketak (1986-1997) Txapelketaren antolamenduaren inguruan sorturiko desadostasunak zirela bitarteko, halako hoztasun eta urrutitze bat gertatu zen bertsolarien eta Euskaltzaindiaren artean. Bertsolariek berek, zenbait bertsozaleren laguntzaz, antolatu zuten 1986koa. Erabaki honek ekarriko zuen handik laster Bertsozale Elkartea sortzea.

Txapelketa hauetan 100 bertsolarik hartu izan dute parte, batez beste. Kontuan hartzen badugu ez dutela urtez urte beti berdinek errepikatzen, txapelketen inguruan bertsolari andana mugitu dela esan genezake. Bestaldetik, txapelketok Donostiako belodromoan jokatu izan dira beti, eta

1989ko Txapelketa Nagusia, finala Anoetan



Iturria: XDXZ / Argazkia: Juanxo Egaña

honek izugarri handitu du ikusleria zuzenaren kopurua, belaunaldi gazteak erakarrit.

Sebastian Lizaso, 1986ko txapelduna, talentu berezikoa dugu zirian, azkarra erantzunetan eta arrazoibidean.

Jon Lopategi, 1989ko txapelduna, ibilbide luzekoa dugu bertsogintzan. Bertsolari sakon eta dotorea dugu.

Andoni Egaña, 1993 eta 1997ko txapelduna, Amurizak urratutako bidean hasita egin du bere estilo berezia. Bere lana da orain bertsolari gazte askoren abiapuntua.

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia 2001

Aurtengo txapelketa goia jotzen ari da alde askotatik. Parte hartzea ikaragarria izan da. Herrialdeetako kanporaketa eta sailkapen saioetatik hasita, 173 bertsolari aritu dira: 73 gipuzkoar, 58 bizkaitar, 20 arabar, 18 nafar eta 4 ipartar.

Txapelketaren bigarren fasean 37 bertsolari ari dira lehian. Hauen arteko batez beste adina 26 urtekoa da. Hortik ateratzen diren 26 bertsolariak, besteak beste, erronka bi dakartza berarekin: Egañaren hirugarren txapelaren aukera eta belaunaldi gazte baten sendotzea. Abenduaren 16an aukera historikoa daukagu gertakari mundial honen errematearen lekuko zuzen izatekoa. Ez galdu! m



Iturria: XDXZ / Argazkia: Usue Montero

## 10ekotxikian Maialen Lujanbio

- Orain asko ez dela, munduan zehar ibili zara bidaiari. Nolako esperientzia izan da hori? Esperientzia aberasgarria. Gure herriaz aparteko leku, jende eta kulturak ezagutzeko beti da interesgarria.
- Herrira indarberrituta itzuli omen zara; eta bertsotarako ere gogoberrituta? Kurtsu bete bat eman dut bertsozale kantatuko gabe, oholtzara igo gabe. Azken hamar urtean ez dut hain epe luzerik “ixilik” pasatu. Desintoxicazio txiki bat izan da eta etorreran betiko jardunari heldzeko gogo berpiztu zait (oraingoz behintzat...).
- Maialen, bigarren kantatuko duzu belodromoan, ondo merezita gainera. Horra helduta, jada, konforme? Konforme baino, oso pozik. Lehen helburua horixe zen. Orain, finalean, bertsotan ahalik eta ondoen egiten saiatuko naiz; eta ia ale dizdiratsuren bat iritetzen den.
- Bertsolari askok txapelketan sufritzen omen dute. Zu ere horietakoa al zara? Ez dut sekula aurten bezainbateko tentsiorik eta presiorik izan bertso saio batean. Presio hori neronek neure buruari jarritakoa izan da, eta egia esan, Etxarriko saioan batez ere, gaizki pasatu nuen.
- Arte Ederretan lizentziatua izateak laguntzen al du bertsotan artelanak egiten? Nik fakultatean ere ez nituen egiten, beraz...
- Badakigu azaro honetan mende laurdena bete duzula. Ona al da orain arteko balantzea? Tristeza litzateke hain urte laburretan sentsazio desatseginak nagusi izatea... Balantze oso ona.
- Zein da bertsotan bizi izan duzun egunik zoriontsuena? Eta garrantziena? Ez nuke jakingo bakar bat aipatzen. Anekdota txiki osatutako ibilbidea izan da; onak, zein txarrak. Nagusiki, dudarik gabe, une txiki zoriontsuak. Eta ez Txapelketako finala eta horrelakoetan (hor ere bai baina...), baizik edozein herritako edozein saio edo afaritan, giro berezia suertatu eta... lehortzen denean.
- Nola sentitzen zara ikusten duzunean zure bertso batek entzulearen muina guztiz hunkitu duela? Betetasun handia ematen du. Gehienbat, adierazten duelako esan nahi zenuen hori jendeari iritsi zaiola; komunikatzea lortu duzula. Eta normalki, horrelakoetan, bertsolariak benetan sentituta kantatzen du kantatzen duena.
- Mendebaldeko urritiko Uribe Kosta bertso erresuman kantatu duzun guztietan oso gustura utzi duzu bertoko bertsozalea. Inspirazio iturri zuretzat? Beti oso baldintza onak eta entzulego atsegina (eta berezia) topatzen ditugu. Inguru honetako saioak prestijioitsu bihurtu dira bertsolarien artean.
- Zein koplak txiki xuxurlatuko zenioke belarri zokora zure bertsoerarekin seko maiteminduta dagoen getxoxtar bertsozale amorratu bati? Inprobisatu egin beharko litzateke, ez?

## Bertsoglifikoa GALDERA



Alfredo Paia “Fredi” 20 urteko algortarra bere gaztean bertsolari bikaina dugu; hori oso argi utzi du aurtengo Txapelketa Nagusian. Baina futbolean ere aritua dugu Fredi. Ba al dakizu zein postutan?

Ondoan erantzun bakarreko 4 galdera dituzu. Erantzun zuzenak eman ondoren, eraman zenbakien gaineko letrak beheko laukietara eta goian eskatzen den erantzuna izango duzu.

1) Zenbat txapel lortu zituen Txirritak Bertsolari Txapelketa Nagusian?

— — — — —  
1 2

2) Zein da Jon Lopategi bertsolari handiaren bertso arloko goitizena? (euskara batuan)

— — — — —  
3 4

3) Saroi Jauregi zumaiarra oso txukun ari da aurtengo txapelketan, baina ez da bertsolaria. Zer da?

— — — — —  
5 6

4) Zein doinu darabil kuttunki Jon Maia?

— — — — —  
7  
Frediren postua futboleko zabilenean:

OOOOOOO  
1 2 3 4 5 6 7  
(Eantzuna: 0000000)

## Bertsoagenda

URTEKO GALA

Abenduak 22, 17:30etan, Algortako Getxo Antzokian  
ALBEko kideen ikuskizun sorpresa  
Bertso jaialdia: Egaña, Lizaso, Iturriaga eta Elortza  
Bideo emanaldia: bertsozalearen urtea  
Ahoi sarien banaketa  
Bertsopaperak

BERTSO POTEOA ERANDIO BEHEKOAN

Abenduak 28, 19:30etan La Plaza tabernetatik abiatuta  
Bertsolariak: Mañukorta eta Nerea Elustondo  
Soinujoleak: Roberto eta Kepa



gaizka escudero / villabotas-ekoa

## Txirlak saltsan

**E**rrez eta oso arin prestatzen den jakia dira txirlak (Plentziakoak gogoangarriak). Hasteko zartaginean su ahulean berakatzu oso ondo txikitua eta gindila aleak jarriko ditugu. Berakatzu urreztatu baino lehen koñak txorrotada ederra bota eta ondoren flanbeatuko dugu, hau da, sua hartu behar du. Gero ardo zuri apur bat eta arrain salda gehitu. Arrain saldarik egina ez badaukagu, esparrago lata bat zabaldu eta barruko ur hori gehituz ere, ederto geratzen da platera. Sutan mantendu hau guztia bost bat minutuz. Azkenean txirlak, perrexila eta irin apur botako ditugu. Hau guztia eragin salda ondo egiteko. Laster txirlak zabaltzen hasiko dira. Platera prest dago. Guztira hamar minutu izan dira, arin ezta? m

osagaiak (bi lagunentza)

- txirlak, hiru dozena • berakatzu, hiru ale • gindila ale bi • koñaka • ardo zuria • irina • arrain salda • perrexila • oliba olio



itsaso arana / jolastoki-koa

## Gabonak kapritxoetarako garaia

**B**erriro ere Gabonak gainean ditugu, eta jakina ospatu behar. Hau, urte osoan zehar, prezioagatik edo aitzakia on bat behar zelako erosten ausartzen ez garen ardo, kaba, txanpaina eta pattar berezi horiek eskuratzeko une egokia da. Gabonak geure buruak krapitxo horiekin saritzeko garai perfektua da.

Merkatuan marka zein jatorri izendapenen eskaintza hain da zabala eze oso zaila da marka jakin batzuk gomendatzea. Nik aholkutxo bat eman nahi nizuke: ez gaitu janari eta edarien arteko konbinazioa kezkatu behar, askotan ilusio eragiten digun ardoaren, kabaren edo txanpainaren marka hutsa askoz garrantzitsuagoa izaten delako. Gabonak, urtean behin baino ez dira. Aprobetxa ezazu. m



# Intxaursaltsa

**Gaur egun era guztietako postreak asmatu dituzte Gabonetarako: turroia, mazapanak... Antzina postrean besterik jaten bazen ere, (batez ere konpota) intxaursaltsa izaten zen bazkariko azken platera.**

Testua: Jokin Aspuru / Argazkia: Mikel Martinez



Mari Tere Garitaonandiak intxaursaltsa goxoa prestatu zigon Urdulizko bere etxean

Garaiak aldatuz doaz eta jateko ohiturak ere bai, halaberrez. Esaterako, antzinako Gabonetako menuak zer ikusi gutxi zeukan gaur egun jaten dugunarekin. Ohizkoa zen hasteko lehenengo azalorea jatea, ondoren arrain errea (txixarroa eta ahal zuenak bisigua) edo barraskiloak saltsan. Bazkaria amaitzeko konpota edo intxaursaltsa jaten zen. Postre hau zelan egiten den jakiteko Urdulizko Mari Tererengana jo genuen, berak oraindik ere ohitura eusten dio eta.

Intxaursaltsa on bat egiteko intxaurrek bertakoa, etxekoa izan behar du. Lehenengo intxaurrek garbitu behar dira,

hau da, azala eta mamia bereiztu. Ondoren ondo txikitu behar dira, eho. Lehen botila batekin zapalduz egiten zen, Mari Terek eiharaxka erabiltzen du gaur egun. Bestetik, lapiko batean esnea, intxaursaltsa eta kanela sutan jarri behar dira, ordu betez gutxi gora-behera. Nahasketa hau etengabe irabiatu behar da. Akabuan azukrea bota behar zaio, hasiera egiten bada itsatsi egiten delako.

On egin! m

Osagaiak

300 gramo intxaursaltsa, litro eta erdi esne, kanela zati bat, 100 gramo azukre

## EREAGA

Bidaiak  
Autobusak

T: 453 08 16 - 909 40 59 88  
GETXO

## GOIZEAN

“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pent-  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarreriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13  
T: 430 22 13 T: 460 02 88  
GETXO ALGORTA

## GAVRKO



GIZONENTZA-  
KO MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T: 4607084

## María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA

BEROGAILU ETA ITUR-

T: 430 53

Sarrikobaso 15 48990

# Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela

Erosketa etxera eroaten dogu!!



ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan:  
9:00-14:00 / 17:30-21:00  
Domeka eta jai egunetan:  
9:00-14:30

dena-ona  
supermerkatua

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA

## Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
T: 94 491 27 34

# 4 bide pinturak



Lau bide 7 • Tlf/Fax: 94 676 52 40 • SOPELA  
Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

## UK ALDIZKARIA

jaso nahi duenak deitu

baino (94 491 13 37)

ez du egin behar.

Pozik onartzen

ditugu zuen dirulaguntzak:

BBK 2095 0022 00 91 02483676



# TXIBERRI

edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15

## [horoskopoa]

### URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Osasuntsu sentitzen duzu zeure burua, baina esperientziak irakatsi dizun bezala hotza ez da zeure lagun onena. Badakigu janzerarekin atentzioa deitzea gustukoa duzula, baina baduzu garaia udako arropa zokoratzeko. Zeure osasunak

### AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Diru kontuetan ahaletin handiago egin beharko duzu, baldin eta aldarrikatzen duzun independentzia errealtate bilakatu nahi baduzu. Haurtzaroko aurriritziak gainditu eta zeure inguruko bigarren aukera bat emon. Edo jadanik ahaztu duzu haiek zuri ere eman zizutela?

### GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Maitasunak zure atean joko du. Adi ibili: postariak ez baitu birritan hots egiten. Horragatik bada ere, ez ahaztu benetan garrantzia duten bestelako arazoak. Kontu handiz ibili ohikoak diren gaizki ulertuekin, liskar bat baino gehiago izan ditzakezulako.

### META



(Irailak 17 urriak 16)  
Eguraldia bezain goibel zabilza, benetan horren sustriaian zer dagoen bilatu beharrez zaude arazoa gainditu ahal izateko. Aspaldi honetan buruan duzun maitasun galdu hori agertu da eta denboran atzera egin ez aurkituko dituzu animu egoera

### OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Maitasun kontuetan dena ikusia duzula uste baduzu ere, gurtien espero duzun momentuan pertsona batek zeure bizitza hankaz gora jarriko du. Beraz, gauzak birritan pentsatu, gero damutzea nahi ez baduzu.

### HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Emozionalki izugarriko oreka egoerara iritsi zara, behar zenituen egonkortasuna eta ziurtasuna topatuz. Baina kontuan eduki gehiegizko ziurtasuna edukitzeak jendeak esaten duena gaitzestera eraman dezakeela. Ez itzazu lagunak atzean ahaztu.

### LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Egun hauetan bizitzaren inguruan dituzun ideiak eta ikusmoldea zalantzan jarri beharko dituzu, ez-ustekoren bat harrapatu dezakezulako. Baliteke zer edo zer kreatiboa egiteak, hala nola, idazteak, zeure ideiak modu argian ikusteko parada eskaintzea. Zure sen sortzaileari askatasuna eman!

### HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)  
Lehenengo begiradan irtenbiderik ez duten egoerak topatuko dituzu. Baina zure senari jarraituz hasiera batean ematen zutena baino errazagoak irudituko zaizkizu gertakari horiek. Abilezia honi esker jende askorentzako euskarri sendo bilakatuko zara,

### ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Aspaldi honetan jasaten ari zaren estresari aurre egiteko zeure egunerokotasuna aldatuko duzu, agian bidaia txo bat egin. Zeure buruari arreta jartzeko ordua heldu zaizu, egun hauetan nahiko ahaztua eduki duzu eta. Baior egoteak bidean aurkitzen dituzun erronka guztiei aurre egiten

### EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Famili arteko harremanek garrantzi handia hartuko dute hilabete honetan, elkarrekin momentu ahaztezinak biziko dituzue eta. Hala ere, profesionalki aldaketa nabarmenak datoz, horregatik zeure jarrera baretu eta lankide zein nagusiek in edozein ezbaita...

### IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)  
Kirola egitearena serioegi hartu duzu eta horrek eraman zaitu gorputzak muga batzuk dituela ahaztera. Gehiegieriak ordaindu egiten dira; kirola egitea osasuntsu da baina gauzak bere neurrian. Hobe duzu gorputza baino burmuina lantzea, aspaldidanik amaitu barik duzun liburua berreskuratuz.

### NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Oraingoan patua ez duzu zure alde, beraz ez itzazu epe laburrerako planik egin ezta Eguberriko Loteria erosi. Abenduan egiten diren erosketak konpulisiboek zure sakela hustuko dute eta norbaitek diru kontuak eskatuko dizkizula kontuan izanik, kalkulak

## [komikia]

Panel 1 (top-left):  
ea, jaimito..., matematika buruketa bat...

Panel 2 (top-middle):  
zuhaitz baten adarrean hiru txori daude. zenbat txori daude orain adarrean?

Panel 3 (top-right):  
ba... bat ere ez, andereño!

Panel 4 (middle-left):  
baina zelan da hori?... jaimito, bi daude!!

Panel 5 (middle-middle):  
lehenengo tiroaren burrunbarekin beste biek hegan egiten ihes egingo zuten, ezta?

Panel 6 (middle-right):  
tira jaimito, ez da hori nik bilatzen nuen erantzuna, baina zure pentsatzeko modua gustatzen zait

Panel 7 (bottom-left):  
andereño... beste buruketa bat jar dezaket? aurrera!

Panel 8 (bottom-middle):  
hiru andre eskue-tan izozki bana dute. batek ez du ezer egiten... beste batek haginka egiten dio eta hirugarrenak, zurruputzen du... galdera... zein dago ezkontuta?

Panel 9 (bottom-right):  
ba... izozkia zurruputzen duena? ji, ji... ba ez, eraztuna duena da, baina zure pentsatzeko modua gustatzen zait andereño! BUKATU DA.

# MUNGIA

## oKINdegia

Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 4301076  
ALGORTA

[flash back]



Bitzer Egumola

## Saskibaloi txapelketa 1951

Garai hartan Getxoako Udalak antolatzen zuen "Olimpiada de la Playa Ereaga" kirol jardunaldiaren, saskibaloia, futbola eta atletismoa lantzen ziren. 1951 In, hamarren bat taldek hartu zuen parte saskibaloi txapelketan. Don Pablo López de Urdale Academian zebiltzan goiko morroskoek irabazi zuten txapelketa hura. Eta zer egiten du emakumezko batek horrenbeste gizonen erdian? Talde bakoitzak bere amabitxia zeukan eta talde honetako Rosa Mari Fullaondo zen (argazkian lore sortarekin). Salsidu kalekoak (La Cadena inguruak) lagunak ziren eta dira argazkian azaltzen diren gizenak; urtean behin eta huts egin barik, bazkaria egiteko elkartzen dira.

**Goiko lerroan:** Josu Zubiaur, Jon Arrinda, Juan R. Meragues, J. M. Fullaondo, Tomás Altuna, Jon Umultia "Txato", Andoni Umultia  
**Erdiko lerroan:** Palui, Rosa María Fullaondo. / **Behoko lerroan:** Jesús Onaindia "Txutxin", Epi Ballo, Chau Martin, J. Castro, Jesús López de Urdale.



eskualdeko musika elektroniko egileen bilduma UK aldizkariaren eskutik

## AURKEZPEN PARTYA

Abenduak 27 Berango Purgatorio tabernan, 22:00 / Kontzertua: TIERRA; DJak eta sorpresa asko / Intro+CD=1.500 pta. / Intro: 800 pta.